# BESTELAKO XEDAPENAK

## ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

## 2772

*EBAZPENA, 2014ko ekainaren 2koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, literatura-itzulpenetarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duen apirilaren 14ko Ebazpenean xedatutako deialdirako balorazio-batzordearen osaketaren berri ematen duena.*

AURREKARIAK

1.– Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariaren 2014ko apirilaren 14ko Ebazpenak literatura-itzulpenetarako diru-laguntzak emateko modua arautu zuen.

2.– Ebazpen horretako 8. artikuluan finkatu zen balorazio-batzordearen osaera. Honako kideak finkatu ziren bertan: lehendakaria: EEIko zuzendaria edo eskuordetzen duen pertsona; EEIko Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria; bokalak 3-5 kide, EEIko zuzendariak izendatuta, aditu diren gizon-emakume eta administrazioko teknikarien artetik; idazkaria, EEIko teknikari bat.

3.– Artikulu horretan bertan dio balorazio-batzordearen osaera EEIko zuzendariak ebatziko duela eta EHAAn argitaratuko dela.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio-batzordeko kideen izenak argitara ematea.

Lehendakaria: Maria Aitzpea Goenaga Mendiola, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria.

Bokalak:

– Mari Jose Olaziregi Alustiza Andrea.

– Bakartxo Arrizabalaga Labrousse andrea.

– Iñaki Iñurrieta Labaien jauna.

– Juan Garzia Garmendia jauna.

Idazkaria: Kizkitza Galarza Arregui, Etxepare Euskal Institutuko Euskara eta Kultura teknikaria.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Etxepare Euskal Institutuaren Zuzendariari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailari bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Ebazpen honek hartzen denetik aurrera izango du eragina.

Donostia, 2014ko ekainaren 2a.

Etxepare Euskal Institutuko Zuzendaria,
MARIA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.